



OSASUN SAILA
Administrazio eta Finantzaketa
Sanitarioko Sailburuordetza
Farmaziako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Administración y
Financiación Sanitarias
Dirección de Farmacia

FARMAKOZAINKETAKO UNITATEA
UNIDAD DE FARMACOVIGILANCIA
BARRUALDE-GALDAKAO ESI
OSI BARRUALDE-GALDAKAO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FARMAKOZAINKETAKO UNITATEAREN MEMORIA (2025)

AURKIBIDEA

	or.
LABURPENA.....	1
*Jasotako kasu kopurua.....	2
*Osabide Globalen jakinarazita, alerten erregistroaren bidez.....	4
*Osabide Globalen jakinarazita, kontsulta ez-presentzialen bidez.....	5
EAE-KO FARMAKOZAINKETAKO SAREAREN BATZORDE TEKNIKO.....	6
EUSKADIKO FARMAZIA JAGOLEEN SAREA.....	6
FARMAKOZAINKETAKO BULETINAK.....	7
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FARMAKOZAINKETAKO UNITATEAREN IRAKASKUNTZA JARDUERA.....	7
*Farmakozainketako ikastaroa profesional sanitarioentzat.....	7
*Farmakozainketako ikastaroa Euskadiko Farmazia Jagoleen Sareko farmazialarientzat (2. Edizioa).....	8
*Farmakozainketako Unitatean prestatzeko egonaldiak.....	8
ZENTROAK KOORDINATZEKO BILERAK. FARMAKOZAINKETAKO BATZORDE TEKNIKOA	9
ETENGABEKO PRESTAKUNTZA	12

AURKIBIDEA

	or.
EMAITZEN TXOSTENA	13
1. SEGURTASUN-SEINALEAK	13
2. JAKINARAZPEN-PROGRAMAREN EMAITZAK	15
2.1 Profesional sanitarioek eta herritarrek helarazitako medikamentuen	16
kontrako erreakzioen kasuen deskribapena	
ESlen araberako banaketa.....	16
Jatorriaren araberako banaketa	17
Kasuen jatorria, jakinarazle motaren arabera.....	18
Jakinarazle berriak.....	19
Aldez aurreko ezagutza.....	20
Adin-taldearen eta sexuaren araberako banaketa.....	21
Larritasunaren eta larritasun-irizpidearen araberako banaketa.....	21
Amaiera orokorraren araberako banaketa.....	22
Erreakzio kaltegarrien banaketa, organoen arabera.....	23
Gehien jakinarazitako erreakzioak.....	24
Gehien jakinarazitako medikamentuak	26
Medikamentuen sailkapena, ATCaren arabera.....	27
Jarraipen gehigarria behar duten medikamentuak (▼).....	28
Kasu alerta-eragileak.....	28
3. PRODUKTU SANITARIOEKIN IZANDAKO GORABEHERAK	31
4. KONTSULTAK	32
5. EKOIZPEN ZIENTIFIKOA	33
ERANSKINAK	34
I. ERANSKINA. Farmazia-industriatik etorritako kasuen deskribapena.....	35
II. ERANSKINA. Farmakozainketako buletinak	40
Farmakozainketako 61. buletina.....	41

Euskadiko Farmazia Jagoleen Sarearen Buletina, 1. zk.....	48
III. ERANSKINA Artikuluak aldizkarietan	54
Urien L, Lertxundi U, Garcia M, Aguirre C, Jauregizar N, Morera-Herreras T.: «Oral Adverse Effects of Antipsychotic Medications: A Case/Noncase Analysis of EudraVigilance Data», <i>in</i> Oral Dis. 2025;31(8):2630-2640. doi:10.1111/odi.15337. JCR inpaktu-faktorea (2024): 2,9. Quartile: Q1.	
IV. ERANSKINA. Komunikazioak biltzarretan	66
Salgueiro Vazquez E, Teijeiro-Suárez S, Suárez-Menéndez E, Suárez-Rodríguez M, Fra Yáñez J, Garcia M.: Impact of the COVID-19 pandemic on impulse control disorders associated with dopamine agonist drugs. XLII Spanish Society of Pharmacology Meeting. Valentzia, 2025eko irailaren 10etik 12ra	

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FARMAKOZAINKETAKO UNITATEA

LABURPENA

Memoria honetan jaso dira Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakozainketako Unitatearen 2025. urteko jarduera eta emaitzak.

2025ean, medikamentuen kontrako erreakzioen (MKE) 3.182 kasu susmagarri jaso dira, profesional sanitarioek (n=3.142) eta herritarrek (n=40 kasu) jakinarazita. 2024aren aldean (n=2.512 kasu), kasuek gora egin dute; gorakada % 26,7koa izan da.

Espainiako Farmakozainketa Sistemaren FEDRA datu-baseari erreparatuz gero, ikusten da, 2024an gertatu zen bezala, 2025ean ere EAE izan dela MKE-kasu susmagarri gehien kargatu dituen autonomia-erkidegoa (MKE: medikamentuen kontrako erreakzioa), nahiz eta beste erkidego gehienak baino askoz biztanle gutxiago izan. MKE-kasuen jakinarazpen horiek, gainera, gorantz ari dira egiten EAEn: hots, 2022an, tasa hori 84,1ekoa zen 100.000 biztanleko (84,1 x 100.000), eta, 2025ean, aldiz, 141,9ekoa.

Farmakozainketaren helburu nagusietako bat ondorio kaltegarri larriak detektatzea da. 2025ean, Farmakozainketako Unitatean 701 kasu larri jaso dira (% 22,0). Kasu larrien jakinarazpenen-tasa 31,26/100.000 izan da, Estatuko batezbestekoa (15,2 x 100.000) baino handiagoa.

Bestalde, gero eta profesional sanitario gehiago ari da lanean Farmakozainketako Programan, baina ez dira 2024an (n=357) baino askoz gehiago (n=408); hots, % 14,3ko igoera gertatu da. Igoera hori batez ere medikuei dagokie.

MKE-kasu susmagarri gehienak Lehen Mailako Arretako medikuek jakinarazitakoak dira. Baina —eta hau ere azpimarratu beharra dago— EAEko farmazialariek ere 2024an baino kasu gehiago jaso jakinarazi dituzte (% 333,3 gehiago); izan ere, profesional horiek konprometituta daude Euskadiko Farmazia Jagoleen Sarearen proiektuan.

Farmakozainketa-sistemek beste aukera bat ere eskaintzen dute, eta ez nolanahikoa: arrisku berri izan daitezkeen seinale gehiago sortzea. 2024an, Euskadiko Farmakozainketako Unitateak vortioxetinak eragindako haluzinazio-seinale bat identifikatu zuen. Azkenik, 2025ean, Sendagaien Europako Agentziako PRACek (Pharmacovigilance Risk Assessment Committee) haluzinazioak vortioxetinaren fitxa teknikoan sartzea erabaki zuen, gutxitan gertatzen den erreakzio kaltegarri gisa. Unitateak, 2025ean, upadazitinben eta melanomen arteko lotura posible baten seinalea aurkeztu

zuen. Eta AEMPSeko CTSEFV-Hn azaldu ondoren, proposatu zen Euskadik emandako datuak baliagarriak izatea balizko seinale horren inguruan egiten ari den ebaluazioa indartzeko.


Hauek dira 2025. urteko datu orokorrak:

1.- Jasotako kasu kopurua.

- Farmakozainketako Unitatean **profesional sanitarioek eta herritarrek jakinarazitako 3.182 kasu jaso ziren**; haietatik, **4 kasu COVID-19aren kontrako txertoek eragindako gertaera kaltegarriak**. Hauek dira aurreko urteetako datuak: 2024an, 2.512 kasu (26, COVID-19aren aurkako txertoek eraginda); 2023an, 1.863 kasu (49, COVID-19aren aurkako txertoek eraginda); 2022an, 1.859 kasu (512, COVID-19aren aurkako txertoek eraginda); eta, 2021ean, 9.583 kasu (8.782, COVID-19aren aurkako txertoenak).
- EAEn sortutako kasuen artetik, farmazia-industriak 710 kasu kargatu zituen EMAren farmakozainketaren (EudraVigilance) datu-basean: 595 kasu 2024an, 534 kasu 2023an, 636 kasu 2022an eta 550 kasu 2021ean.
- EMAko *Medical Literature Monitoring* zerbitzutik (MLM) 7 kasu jaso ziren. Zerbitzu horren bidez, EMAk literatura medikoaren jarraipena egiten du, jakiteko ea badagoen MKE-kasu susmagarriak (Europar Batasunean baimenduak) jada publikatuta egon arren oraindik, ustez behintzat, estatu kideetako farmakozainketa-sistema nazionaleri jakinarazi ez zaienik. Helburua kasu horiek Vigibase sisteman sartzea da. Hau da, EMAko MLM zerbitzuak, 2025ean, aldizkari zientifikoetan argitaratutako 7 MKE-kasu susmagarri identifikatu zituen EAEn, bertan sortuak.


2025ean, Espainiako Farmakozainketa Sistemaren (FEDRA) datu-basean, EAetik etorritako **3.871 MKE-kasu** susmagarri sartu dira guztira (28 kasu aldi berean profesional sanitarioek eta industriak jakinaraziak) (ikus 2. irudia).

1. irudian erantsitako eskeman ikusten da, laburbilduta, medikamentuen segurtasunak zer informazio-fluxu eragin duen, eta, informazio horren harira, ardura-maila bakoitzean zer egiten den.



1. **irudia.** Medikamentuen segurtasun-informazioaren fluxua eta jarduera-mailak

Kasu guztien zenbatekoa, urtetik urtera.



* COVID-19aren aurkako txertoen kasu kopurua: 2021ean, 8.782 kasu; 2022an, 512; 2023an, 49; 2024an, 26; eta, 2025ean, 4.

2. irudia. Urtetik urtera, kasu kopurua, guztira: profesional sanitarioak eta herritarrak, farmazia-industria eta MLM.

Jakinarazle berriak. 2025ean, 408 jakinarazle berri egon dira, jakinarazle guztien % 40,8 (n = 1000). 408 jakinarazle berrietatik, 278 medikuak ziren, 50 farmazialariak eta 80 erizaintzako graduatuak (20. or.); zifra horiek 2024koak baino handiagoak dira.

Osateketik datorren komunikazioa. Baldin Osatek zentroetan erresonantzia magnetikoak egiteko erabiltzen diren kontrasteek erreakzio txarrak eragiten badituzte, komunikazioak Osateken Zuzendaritzan zentralizatzen dira, eta, hark, Farmakozainketako Unitateari jakinarazten dizkio.

2025ean, 31 kasu jaso dira (2024an, 27; 2023an, 23; eta 2022an, 15).

Osabide Globalen jakinarazita, alerten erregistroaren bidez. Osabide Globaleko alerten ataleko MKEen erregistroa 2016ko abenduan sortu zen, eta, gaur egun, horixe da lehentasunez erabiltzen den bitartekoa MKE-kasu susmagarriak Farmakozainketako Unitateari jakinarazteko.

2025ean, bide horretatik 2.779 MKE-kasu susmagarri jaso ziren; baina haietako 259 baliorik gabetzat jo dira, arrazoi hauengatik: jakinarazitako dena delako gertakari hori ez da MKEa; ez dago denbora-

tarte koherenterik farmakoa eman den unetik MKEa agertu den unera arte; ez da jakin noiz eman den farmakoa edo noiz agertu den MKEa, edo kasu bikoiztua da.

Txartel horiaren bidezko komunikazioa (formulario hori Osakidetzaren intraneten dago). 2008ko abuztuan, jakinarazpenak online egiteko formulario bat gehitu zen Osakidetzako webgunean; jakinarazpenok posta elektronikoz bidal daitezke Farmakozainketako Unitatera (farmacovigilancia@osakidetza.eus). Osakidetzako profesional orok erabil dezake MKE bat intranetetik jakinarazteko; erraz-erraza da. Hala, 2025ean 45 kasu jaso dira formatu horretan. 2024an, 63 izan ziren; 2023an, 53, eta, 2022an, 42.

Bide horren erabilerak —formularioa bete beharra dago horretarako— behera egin du, ziur asko beste bide batzuk erabili direlako jakinarazpenak egiteko (Osabide Globaleko alerten atala); izan ere, Farmakozainketako Unitateak lehentasunez horixe erabiltzeko gomendatzen die profesionali.

Osabide Globalen jakinarazita, kontsulta ez-presentzialen bidez.

Bada beste bide bat ere Farmakozainketako Unitateari MKE-kasu susmagarriak jakinarazteko eta kontsultak egiteko, Osabide Globaleko kontsulta ez-presentzialen atalaren bidez, Barrualde-Galdakao ESItik, Uribeko ESItik, Debagoieneko ESItik, Arabako ESItik eta zentro soziosanitarioetatik. 2024an, 19 komunikazio jaso dira bide horretatik.

MKEak jakinaraztea

2010/84/EB Farmakozainketari buruzko Europako zuzentaraua betez, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS), Farmakozainketako Zentro Autonomikoen sarearekin lankidetzan, <https://www.notificaRAM.es> webgunea garatu zuen (2013ko urtarrilaren 15ekoa), MKE-kasu susmagarriak zuzenean eta elektronikoki jakinarazteko.

Jakinarazpen-prozedura horren bidez, Farmakozainketako Unitateak 502 kasu jaso zituen 2025ean. Kasu horietako batzuk herritarren artetik zetozen (39 kasu); beste batzuk farmazia komunitarioko farmazialarien artetik (430 kasu); eta beste zenbait EAEko beste profesional sanitario batzuen artetik (33 kasu).

Medikazio-akatsak.

2025ean, Farmakozainketako Unitatean ez da jaso MKE-kasu susmagarriak medikazio-akatsekin lotuta.

Telefono bidezko kontsultak

Profesional sanitarioek Farmakozainketako Unitateko teknikariei egiten dizkiete kontsultak. Kontsulta horien garrantziaz jabetuta —garrantzitsua baita bai informazioa ematea bai profesionalak heztea—, ahalegin handia egiten da azkar eta ondo erantzuteko; hau da, egunean bertan ematen da erantzuna telefonoz, eta erantzun hori idatzi ere egiten da, gero bidaltzeko. Deskribapen xehatua 34. orrialdean dago. 2025ean, kontsultak 72 izan ziren; 2024an, 67; 2023an, 55; eta 2022an, 43.

EAE-KO FARMAKOZAINKETAKO SAREAREN BATZORDE TEKNIKOA

EAEko Farmakozainketa Sistemak erabaki zuen farmakozainketako batzorde tekniko bat sortzea, Eusko Jaurlaritzako Farmazia Zuzendaritzari aholkularitza eta laguntza emateko, hura baita Farmakozainketako Programaren arduraduna (sistema bera 239/2002 Dekretuaren bidez dago araututa, besteak beste). Batzordeak bere kideak berriro egin zituen, Osasuneko sailburuak 2010/01/04an egindako izendapenaren bidez. Hona hemen gaur egungo kideak:

- Jon Iñaki Betolaza San Miguel jauna. Farmaziako zuzendaria
- Montserrat García García andrea. Farmakozainketako Unitatea.
- Iñigo Aizpurua Imaz jauna. Farmazia Zuzendaritza
- Jesús Fernández de Mendiola Espino jauna. Lehen Mailako Arretako medikua

2025ean batzorde teknikoak ez du bilerarik egin.

EUSKADIKO FARMAZIA JAGOLEEN SAREA

2025ean, jarraitu egin da Farmazia Jagoleen Sarea sendotzen. EAEko beste 33 farmazia batu zaizkio, aurrerantzean ere medikamentuen segurtasunaren zaintza indartzen jarraitzeko eta etorkizunean beste prebentzio-estrategia batzuk ezartzeko. Farmazia horiek guztiek egin zuten Farmakozainketari buruzko prestakuntza-ikastaroa, unitateko teknikariek emana. Ikastaro horri, aurreko edizioan bezala, 1,3 kreditu eman zizkion Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak.

Sare hori 77 farmaziatara handitu da. Lurralde osoan banatuta daude (33 Bizkaian, 24 Gipuzkoan eta 20 Araban).

2025ean, sare horretan 387 MKE-kasu susmagarri jaso dira. Lurraldeka, 227 kasu Gipuzkoakoak ziren, 106 Bizkaikoak eta 54 Arabakoak. Gainera, 106 kasu (% 27,3) larritzat jo ziren.

Horretaz gainera, Sarearen Jarraipen Batzordeak 5 bilera egin ditu 2025ean (otsailaren 5ean, martxoaren 18an, maiatzaren 27an, irailaren 30ean eta azaroaren 25ean), emaitzak aztertzeko eta emaitza horiek jakinarazten ahalegintzeko. Horretarako sortu zen Farmazia Jagoleen Sarearen buletina, non azaltzen baitziren zein izan diren sarearen lehen jardun-urtean lortutako emaitza garrantzitsuenak (II. eranskina).

FARMAKOZAINKETAKO BULETINAK

2025ean, Farmakozainketako Unitateak 2 buletin egin eta banatu ditu profesional sanitarioen artean: ekainekoa (61. buletina) eta azarokoa (Euskadiko Farmazia Jagoleen Sareari zuzenduta) (II. eranskina).

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FARMAKOZAINKETAKO UNITATEAREN IRAKASKUNTZA-JARDUERA

*** Farmakozainketako ikastaroa profesional sanitarioentzat**

Profesional sanitarioentzako azken farmakozainketa-ikastaroa 2023an egin zen online. 2025ean, berriz, ikastaro horretako edukia lantzen jarraitu da.

Eduki teorikoaren proposamena berrikusi eta eguneratu ondoren, Farmakozainketako Unitatea zenbait hizlariarekin harremanetan jarri da prestakuntza-jardueraren edizio berri honetarako.

2024an hasi zen prestakuntza-material berria egiten, eta 2025ean berrikusi egin da. Osakidetza Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboarekin batera, material berria formatu korporatibora egokitzeko lanak aurrera jarraitzen du, Jakinsarea prestakuntza-plataformaren bidez eskaintzeko. Horrela, plataforma horren bidez, Osakidetza Zerbitzu Erakunde Integratuetako pertsonal sanitarioak ere izango du ikastaroa egiteko aukera.

Berritasun gisa, hurrengo edizioak ikuspegi kliniko zabalagoa erabiliko du; hots, aurrerantzean, praktika klinikoan identifika daitezkeen MKE-kasu susmagarrien adibideak ere erabiliko ditu, espezialitate mediko bateko eta besteko langileek eginak.

Gainera, modulu batzuek edukia bideo-formatuan aurkeztuko dute, kontzeptuak errazago uler daitezen.

*** Farmakozainketako ikastaroa Euskadiko Farmazia Jagoleen Sareko farmazialarientzat (2. edizioa)**

Euskadiko Farmazia Jagoleen Sarera farmazia-profesional berriak batu daitezen, 2025ean pentsatu zen beste prestakuntza-ikastaro bat antolatzea, eta berariaz farmazia-bulegoetako langileei zuzenduta egotea.

Ikastaroa emateko, azalpen- eta ikaskuntza-metodologia konbinatzea planteatu zen, Go To Webinar™ plataformaren bidez telematikoki egindako mintegien bidez (2024ko ikastaroan ere metodo horixe bera erabili zen).

Ikasleek, azken ebaluazio gisa, bi gauza egin behar izan zituzten: amaierako galdetegi bat bete; eta kasu kliniko praktiko batzuk ebatzi. Prestakuntza-saio horri 1.3 kreditu eman zizkion Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak. Guztira, 77 farmazialarik gainditu zuten.

***Farmakozainketako Unitatean prestatzeko egonaldiak**

1989an sortu zenetik, era askotako eta jatorri anitzetako profesionalak egon dira Farmakozainketako Unitatean beren buruak prestatzen. Egonaldiek astebete baino gutxiago iraun dezakete (graduaurreko Medikuntzako ikasleak, Farmaziako ikasle atzerritarrak, Euskal Herriko Unibertsitateko master-ikasleak), edo gutxienez hilabete, batez ere farmazialari egoiliarrenak (FIR), beren 2. urtean. Farmakozainketako Unitateko egonaldi hori txandatzuz egiten da; txandaketa aurretiaz arauturik egoten da, Galdakao-Usansolo Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak onartzen du, eta txandaketaren ebaluaketa-orrian kalifikatzen da.

Farmakozainketako Unitateko egonalditik, ikasleak, helburu orokor gisa, Espainiako Farmakozainketa Sisteman zer lan-metodo erabiltzen den ikasita atera behar du, bai eta haren egitura eta funtzionamendua ere. Horrela, farmakozainketako eragile aktiboa izango da bere ohiko lantokian, oraingoa zein etorkizunekoa izan.

2025ean, guztira 5 lagun joan ziren Farmakozainketako Unitatera, prestakuntza-egonaldietara:

- ✓ EHuko Farmaziako hiru ikasle (2025eko martxoa eta ekaina).
- ✓ EHuko Osasun Publikoko Masterreko ikasle batek unitatean egin zituen curriculumetik kanpoko praktikak, maiatzean.
- ✓ Farmazialari egoiliar bat (FIR1), Galdakao-Usansoloko Unibertsitate Ospitaleko Farmazia Zerbitzutik.

ZENTROAK KOORDINATZEKO BILERAK. FARMAKOZAINKETAKO BATZORDE TEKNIKOAK

Giza Erabilerarako Medikamentuen Espainiako Farmakozainketa Sistemaren (SEFV-H) organigramaren barruan (ikus 6. orrialdeko fluxugrama), Farmakozainketako Batzorde Teknikoa dago (CTSEFV-H), eta AEMPSak eta autonomia-erkidegoek bertan parte hartzen dute, betiere Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren (AEMPS) Estatutua onartzen duen 1275/2011 Errege Dekretuaren 22. artikulua araberak. SEFV-Hk sortzen dituen seinaleak batzorde horretan eztabaidatzen dituzte zientifikoki; eta prozedura batzuk adosten dira, beti modu berean tratatu eta ebaluatu daitezkeen MKE-kasu susmagarrien jakinarazpenetan datozen datuak.

2025. urtean, CTSEFV-H batzordeak 9 bilera egin ditu (urtarrilaren 23an, otsailaren 20an, martxoaren 27an, apirilaren 24an, maiatzaren 21ean, uztailaren 17an, irailaren 25ean, azaroaren 20an eta abenduaren 17an), haietako 5 telekonferentzia bidez eta 4 aurrez aurre. Hauek dira bilera horietan jorratu ziren gai batzuk:

2025/01/23

- Seinaleak:
 - Ibrutinib eta eztula
- Informazio-gaiak:
 - Seinaleei buruzko informazioa zabaltzea
 - Farmakozainketako XI. Mintegia, Évora
 - SEFV-H sisteman sortutako seinaleak aztertzea

2025/02/20

- Seinaleak:
 - Upadazitinib eta melanoma
- Informazio-gaiak:

- CTSEFV-Hren 2024ko jarduera-memoriaren aurkezpena
- Farmakogenomikoak FEDRAn aztertzea*.
- FEDRA 3 eguneratzea. Erabiltzailearen eskuliburua
- Interes-gatazkaren eta konfidentzialtasunaren adierazpena eguneratzea
- Farmakozainketako XI. Mintegia, Évora

2025/03/27

- Informazio-gaiak:
 - Farmakozainketako XI. Mintegiko ondorioak.
 - CTSEFV-Hren 2024ko jarduera-memoriaren onarpena.

2025/04/24

- Seinaleak:
 - Tirzepatida eta depresioa
 - Sekukinumaba eta hidradenitis paradoxikoa
- Informazio-gaiak:
 - MedSafetyWeek 2025
 - SEFV-Hko seinale-gida, 3. bertsioa. IV. eranskina. Seinaleei buruzko informazioa zabaltzea. Onartzea.
 - GSEFV-H 012. CTSEFV-Hko seinaleak kudeatzeko prozedura, 2. bertsioa. Aurkezpena.

2025/05/21

- Seinaleak:
 - Pemetrexed eta lupus eritematosoa
 - Zink azexamatoa eta kobre eskasiagatiko bizitopenia
 - Bosutinib eta baskulitis leukozitoklastikoa
- Informazio-gaiak:
 - GSEFV-H 012. CTSEFV-Hko seinaleak kudeatzeko prozedura, 2. bertsioa. Onartzea.
- Lantaldeak eguneratzea
 - Prestakuntza, Azterlan eta Estrategien Lantaldea. 2025, v2 prestakuntza-plana eguneratzea.

2025/07/17

- Seinaleak:

- Nazioarteko arrazoi normalizatua murriztea, tirzepatidaren eta azenokumarolaren arteko interakzioagatik.*
- Mepolizumab eta alopezia
- Daridorexant eta jokabide suizidak
- Informazio-gaiak:
 - FEDRA 3 eguneratzea.
- Lantaldeak eguneratzea
 - Kodifikazio-irizpideak armonizatzeko lantaldea. V. kodifikazio-gida, 9. bertsioa.

2025/09/25

- Seinaleak:
 - Benralizumab eta zoster herpesa
 - Upadazitinib eta amenorrea
- Informazio-gaiak.
 - Farmakozainketako XII. mintegia
- Lantaldeak eguneratzea
 - Prestakuntza, Azterlan eta Estrategien Lantaldea: GSEFV-H-008 (2. bertsioa). SEFV-Hko zentro autonomikoen FEDRAko datuak erabiltzea. Aurkezpena.
 - Kodifikazio-irizpideak armonizatzeko lantaldea. V. kodifikazio-gida, 9. bertsioa. Onartzea.

2025/11/20

- Seinaleak:
 - Omalizumab eta hemofilia hartua
 - Sekukinumaba eta larruazaleko neoplasia gaiztoak
- Informazio-gaiak:
 - FEDRA 3 eguneratzea.
 - Farmakozainketako XII. mintegia
 - CTSEFV-H batzordearen bilera-egutegiaren proposamena (2026)
 - Farmakozainketako zentro autonomikoei (CAFV) egindako auditoretzen txostena
- Lantaldeak eguneratzea

- Prestakuntza, Azterlan eta Estrategien Lantaldea: GSEFV-H-008 (2. bertsioa). SEFV-Hko zentro autonomikoen FEDRAko datuak erabiltzea. Onartzea.
- 2026ko prestakuntza-plana aurkeztea.

2025/12/17

- Seinaleak:
 - Dapagliflozina eta enpagliflozina, eta liken esklerosoak

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Prestakuntza, Azterlan eta Estrategien Lantaldeak urtero-urtero prestakuntza-plan bat egin du SEFV-Hrako, eta batzorde teknikoak onartzen du. 2025ean, guztira, 3 modulu egin dira. Hona hemen haien edukia:

I. modulua: Medikamentuek eragindako nefropatiak. José Luis Górriz doktorea. Nefrologiako Zerbitzua. Valentziako Unibertsitate Ospitale Klinikoa.

II. modulua Farmakogenomika. Farmakozainketan dituen aplikazioak.

1. saioa – Sarrera. María Gordillo Marañón. (Arriskuak Identifikatzeko Unitatea - AEMPS).

2. saioa – Farmakogenetika Espainiako Osasun Sistema Nazionalean ezartzea: farmakozainketaren ikuspegitik begiratuta. Adrián Llerena doktorea. Badajozeko Unibertsitate Ospitalea, Badajoz.

3. saioa – Biobankuak eta farmakozainketa. Angel Carracedo doktorea. Santiago de Compostelako Unibertsitatea eta Medikuntza Xenomikoko Galiziako Fundazio Publikoa – Servicio Galego de Saúde (SERGAS), Santiago de Compostela.

III. modulua SEFV-Hren kodetze-gida (9. bertsioa). Sonia Sáenz de Urturi (Errioxako Farmakozainketako Zentroa) eta Lara Quiroga (Arriskuak Identifikatzeko Unitatea - AEMPS).

Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakozainketako Unitateko teknikariek hiru prestakuntza-modulu horiek osatu zituzten.

Gainera, langileek, 2025ean, Osasun Sistema Nazionalean sendagaiak eta teknologia sanitarioak ebaluatzen unibertsitate-adituen diploma ere eskuratu zuten.

EMAITZEN TXOSTENA

1. SEGURTASUN-SEINALEAK

Jarraian, zerrenda batean jaso dira Farmakozainketako Unitateak zer segurtasun-seinale aurkeztu dituen AEMPSeko CTSEFV-Hn (Giza Erabilerarako Medikamentuen Espainiako Farmakozainketa Sistemaren Batzorde Teknikoan)

➤ **Upadacitinib eta melanoma (CTSEFV-Hn aurkeztua, 2025eko otsailean)**

Farmakozainketako Unitatean bi kasu jaso ziren, eta upadacitinib larruazaleko melanomarekin lotuta egon zitekeela susmatzen zen bietan.

1. kasua: 54 urteko emakumea, aurrekari pertsonal hauekin: biriketako gaixotasun interstizial lausoa, kabitazio zentrala duten noduluekin eta artritis erreumatoide (AE) seropositiboarekin. Aldez aurretik tratamendu batzuk jaso zen artritiserako (metotrexatoa, leflunomida, adalimumab, barizitinib). 2024ko uztailan, tratamendu modura Rinvoq (upadacitinib) eman zioten: 15 mg, 24 orduan behin. Urte horretako irailean, larruazaleko lesio bat erauzi zioten. Biopsiaren txostenean "*in situ* melanoma motako lesioa" deskribatzen zen; beraz, emaitzaren berri eman ondoren, ebakuntza kirurgikoa egin zioten. Kirurgiaren ondoren ez da gorabeherarik izan, eta 6 hilean behin azterketa egitea dauka planifikatuta.

2. kasua: 41 urteko emakumea, AE diagnostikatu zioten, eta hasierako tratamenduan zegoen metotrexato+hidroxioklorokinarekin. 2022an adalimumab hartzen hasi zen, baina, eraginkorra ez zela-eta, kendu eta Rinvoq (upadacitinib) eman zioten, aldi berean metotrexatoa ere hartzen zuelarik, baina geroz eta gutxiago. Dermatologiaren kontsultan, 2023ko martxoan, nevus batzuk deskribatu zizkieten, eta, ondoren, haietako baten exeresia egin zioten. Egindako biopsiaren emaitzetan, melanoma inbaditzaile nodularrarekin bateragarria den lesioa deskribatzen da. Diagnostiko hori ikusita, upadacitinib hartzeari utz ziezaiola erabaki zen, eta ebakuntza kirurgikoa programatu zen, ertzak handitzeko. Jarraipenean, hondar-neoplasiaren ebidentziarik ez zen aurkitu, eta aldizkako kontrolak egitea programatu zitzaion.

Iruzkina: Ez upadacitiniben fitxa teknikoan, ez UpToDaten, ez Micromedexen, ez dago deskribatuta melanoma motako larruazaleko minbizia agertzea.

Alabaina, FEDRAn bilaketa bat egin ondoren [2019/12/16tik, egun horretan baimendu baitzen upadacitinib, 2025/01/15era arte], ikusi zen bazirela upadacitinibek erreakzio kaltegarriak eragin zitzakeelako susmopean aurkeztutako 602 kasu espontaneo erregistratuta. Haietako 4 (% 0,66)

“larruazaleko melanomak” ziren (begietakoak alde batera utzita) [bilaketa HLT terminoen bidez]. Bilaketa EudraVigilancen egin zenean, ikusi zen denbora-tarte horretan, guztira, upadazitinibek erreakzio kaltegarriak eragin zitzakeelako susmopean aurkeztutako 8.897 kasu espontaneo zeudela jasota, eta, haietako 38 larruazaleko melanomak ziren (begietakoak alde batera utzita) [HLT terminoa: “Skin melanomas (excl. ocular)”]. Gainera, EudraVigilancen, upadacitinib zen farmako susmagarri bakarra (kasuen % 81,58) erregistratutako kasuen ehuneko handi batean.

Reporting odds ratio (ROR) delakoa erabiliz desproporzionaltasun-analisi bat egin zenean, jakinarazpen-desproporzioa ikusi zen bai FEDRAn bai EudraVigilancen:

Alde batetik, FEDRAn, larruazaleko melanometarako (begietakoak izan ezik), ROR (KT: % 95) = 61,97 (21,95 – 174,99) zen.

Bestalde, HLT termino bererako, EudraVigilance-n, ROR = 9,47 (6,87 – 13,06) zen.

2025eko otsailaren 20an, segurtasun-seinale posible hori aurkeztu zen AEMPSeko CTSEFV-Hren hileko bileran. Azalpena amaitu ondoren, bilera horretan proposatu zen Euskadik emandako datuak baliagarriak zirela seinale posible horren inguruan egiten ari den ebaluazioa indartzeko.

2. JAKINARAZPEN-PROGRAMAREN EMAITZAK

2025ean, EAEko Farmakozainketako Unitatean, 3.182 MKE-kasu susmagarri jaso dira guztira, profesional sanitarioek eta herritarrek jakinarazita, eta horietatik 4 COVID-19aren aurkako txertoek eragindako ondorio kaltegarrienak izan dira.

Bestalde, farmazia-industriak EAEn sortutako 710 kasu kargatu zituen EudraVigilancen. EudraVigilancek SEFV-Hko FEDRA datu-basera birbidali zituen farmazia-industriaren kasuak, bai eta EudraVigilanceren MLM zerbitzuko 7 kasu ere.

Guztira, 2025ean, FEDRA datu-basean EAEn sortutako 3.871 MKE-kasu susmagarri sartu dira (28 kasu aldi berean profesional sanitarioek eta industriak jakinaraziak) (ikus 1. irudia).

1. taula. 2025ean EAEn gertatutako medikamentuen kontrako erreakzio susmagarrien jakinarazpenen jatorria eta mota.

Jatorria eta mota	Jasotakoak	Baliogabeak	Berriak, guztira
Profesional sanitarioen/herritarren kasu espontaneoak	3448	266	3182
COVID-19aren aurkako txertoen kasuak	4	-	
MLM zerbitzua	7	-	7
Farmazia-industria	710	-	710
FEDRAn kargatutakoak, guztira	-	-	3.871*

* Profesional sanitarioek eta industriak aldi berean jakinarazitako 28 kasu

Profesional sanitarioek eta herritarrek helarazitako medikamentuen kontrako erreakzioen kasuen deskribapena

2025ean, medikamentuen kontrako erreakzioen (MKE) **3.182 kasu** susmagarri jaso dira, **profesional sanitarioek eta herritarrek jakinarazita**. Jakinarazpen-tasa hau izan da: 141,91 kasu 100.000 biztanleko. Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero, EAEn handia izan da 100.000 biztanleko jakinarazpen-tasa (**bigarren erkidegoa**).

3.182 kasuetatik, 1.698 (% 53,4) Bizkaikoak ziren, 1.019 (% 32,0) Gipuzkoakoak eta 465 (% 14,6) Arabakoak.

Jarraian, kasuak deskribatzen dira, Osakidetza Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) eta jatorriaren arabera (2. eta 3. taulak).

OSAKIDETZAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUEK (ESI) JASOTAKO KASUEN KOPURUA

2. taula. ESlek jasotako kasuen kopurua

	Guztira	Larriak	Ezezagunak
ARABAKO ESI-A	373	70	40
ARABAKO ERRIOXAKO ESI-A	11	0	1
URIBEKO ESI-A	185	34	23
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI-A	226	50	28
BARAKALDO-SESTAOKO ESI-A	73	11	8
BARRUALDE-GALDAKAO ESI-A	487	135	40
BILBO-BASURTUKO ESI-A	501	79	47
DONOSTIALDEKO ESI-A	312	72	30
GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI-A	186	25	17
DEBAGOIENEO ESI-A	117	37	24
DEBABARRENEKO ESI-A	53	11	6
TOLOSALDEKO ESI-A	32	1	1
BIDASOAKO ESI-A	41	14	1
SANTA MARINA OSPITALEA	0	0	0
GORLIZKO OSPITALEA	8	4	1
BURU-OSASUNEN KOPURUA			
ARABA	7	2	0
BIZKAIA	20	10	3
GIPUZKOA	9	1	1

3. taula. Kasuen banaketa jatorriaren arabera

	Kopurua	Kopurua	%-a
OSASUN-ZENTROAK		1858	58,2
OSPITALEAK		780	24,5
Galdakao-Usansoloko Unibertsitate Ospitalea	173		
Arabako Unibertsitate Ospitalea	108		
Donostia Unibertsitate Ospitalea	106		
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	96		
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	81		
Debagoieneko Eskualde Ospitalea	51		
Urdulizko Ospitalea	40		
Zumarragako Ospitalea	29		
Gernika-Lumoko Ospitalea	24		
Mendaroko Ospitalea	21		
San Eloy Ospitalea	13		
Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa	11		
Bidasoa Ospitalea	10		
Gorlizko Ospitalea	8		
Arabako Ospitale Psikiatrikoa	1		
Eibarko Ospitalea	1		
Beste ospitale batzuk	7		
FARMAZIA-BULEGOAK		441	13,8
Farmazia Jagoleen Sarea	387		
HERRITARRAK		40	1,3
OSASUN MENTALEKO ZENTROAK		23	0,7
OSATEK		31	1,0
LARRIALDIK		3	0,1
ZENTRO SOZIOSANITARIOAK		2	0,1
Beste jatorri batzuk		10	0,3
GUZTIZKOA		3.188*	

* Zentro batek baino gehiagok aldi berean jakinarazitako 6 kasu.


KASUEN JATORRIA, JAKINARAZLE MOTAREN ARABERA

2025ean, kasu gehienak Lehen Mailako Arretako medikuek jakinarazi zituzten (n = 1.849; % 57,8), eta, ondoren, ospitale-asistentziako medikuek (n = 544; % 17,0) eta farmazia komunitarioko farmazialariek (n = 442; % 13,8). 4. taulan eta 3. irudian jaso dira.

4. taula. 2022tik jasotako kasuen jatorria, jakinarazle motaren arabera

	Jakinarazpen kopurua, n (%-a)			
Lanbidea	2022	2023	2024	2025
Lehen Mailako Arretako medikuak	1.005 (53,9)	1263 (67,7)	1620 (64,4)	1849 (57,8)
Ospitale-asistentziako medikuak	435 (23,3)*	321 (17,2)*	408 (16,2)*	544 (17,0)*
Farmazia komunitarioko farmazialariak	8 (0,4)	8 (0,4)	102 (4,1)	442 (13,8)
Ospitaleko farmazialariak	102 (5,5)	130 (7,0)	193 (7,7)	158 (4,9)
Erizaintza	179 (9,6)	86 (4,6)	148 (5,9)	167 (5,2)
Herritarrak	128 (6,9)	53 (2,8)	46 (1,8)	40 (1,2)
Zehaztu gabeko profesional sanitarioa	-	4 (0,2)	-	1 (0,03)
Bestelakoak	9 (0,5)	-	-	-
Guztira	1866 (% 100)**	1865 (% 100)**	2517 (% 100)**	3201 (% 100)**

* Osateketik datozenak gehitu dira (2022an 15, 2023an 23, 2024an 27 eta 2025ean 31). ** Hainbat profesionalak aldi berean jakinarazitakoak: 7 kasu 2022an; 2 kasu 2023an; 5 kasu 2024an, eta 19 kasu 2025ean



3. irudia: Jasotako kasuen kopurua, profesional sanitario motaren arabera

JAKINARAZLE BERRIAK

5. taulan, jakinarazleen guztizkoa eta berrien kopurua jaso dira, profesional sanitario motaren arabera taldekatuta, bai eta azken 5 urteetako bilakaera konparatua ere.

5. taula. Jakinarazleen guztizko kopurua eta berrien kopurua

	2021		2022		2023		2024		2025	
	Guztir berriak		Guztir berriak		Guztir berriak		Guztir berriak		Guztir berriak	
	a		a		a		a		a	
Medikuak	877	460	577	199	642	265	737	242	777	278
Farmazialariak	93	28	51	15	45	11	105	42	131	50
Erizaintza	322	292	77	37	55	48	88	73	92	80
Guztira	1292	780	705	251	742	324	930	357	1000	408

6. taulan, jakinarazle bakoitzeko kasu kopurua jaso da; ikusten denez, jakinarazle gehienek, oro har, 1-2 kasu bidaltzen dituzte urtean.

6. taula. Kasu kopurua jakinarazle bakoitzeko

Jakinarazpenak	2021	2022	2023	2024	2025
1-2	1016	672	613	723	771
3-5	201	98	123	171	181
≥ 6	321	56	59	92	132

GUTUNAK

Jakinarazpenen igorleek hartu-agiri bidezko erantzuna jaso zuten, eta erantzun hori jakinarazpen-moduan eman zen. Kontsulta ez-presentzialen kasuan, erantzuna pazientearen Osabide Globaleko historia klinikoan eman zen (eta grabatuta geratu zen), Ebolutibo gisa. Osabide Globaleko alerten atalaren bidez jasotako kasuetan, hartu-agiria posta elektronikoz bidali zen.


Bestalde, kasu guztietan (ageriko ezintasunik ezean), unitateko teknikariek jasotako informazioa egiaztatu zuten, farmazia komunitarioan medikazioak jaso zirela berretsi zuten, pazientearen aurrekariei buruzko informazioa gehitu zuten eta, kasua larria zenean, kasuaren sintesia-narrazioa egin zuten, FEDRAn kargatu zena.

Jarduera hori berezia da SEFV-Hn, eta haren lan-karga nekez balora daiteke erabiltzen diren adierazleetan. Gainera, balio erantsia ematen dio EAEk EudraVigilancen sartzen dituen jakinarazpenen kalitateari, ez baita mugatzen hasieran jasotako informazioa soilik kodetzera eta FEDRA datu-basean sartzera.

ALDEZ AURREKO EZAGUTZA

MKEen susmoak ebaluatzeko alderdi garrantzitsu bat da jakitea zenbateraino ezagutzen den aldeaz aurretik medikamentuaren eta erreakzio kaltegarriaren arteko lotura literatura zientifikoan. Aurretiazko deskribapenik gabeko jakinarazpenen ehunekoa handia bada, alerta-seinaleen adierazle izan daiteke; izan ere, beste erreakzio batzuk gerta daitezke, nahiz eta susmo hori geroago berretsi behar den.


2025ean ebaluatutako 3.182 kasuetan, medikamentuen eta erreakzio kaltegarrien arteko 3.312 asoziazio jaso ziren (kasu bateko «medikamentua-erreakzio kaltegarria» bikoteak bat baino gehiago izan daitezke). Horrela, 3.312 asoziazioetatik, 2.895etan (% 87,4) erreakzioa ezaguna zen; 256tan (% 7,7) ez zegoen deskribatuta fitxa teknikoan, eta 161tan (% 4,9) ez zen oso ezaguna (hau da, literaturan komunikazio bakanak zeuden, kasu gisa, oro har).



4. irudia. Profesional sanitarioek eta herritarrek jakinarazitako kasuetan, «medikamentua-erreakzio kaltegarria» asoziazioaren berri izatea aldeaz aurretik (kasu bateko «medikamentua-MKE» bikote bat baino gehiago izan ditzake).

ADIN-TALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA

3.182 kasuetatik, 2.044 (% 64,2) emakumezkoenak ziren. Adin-talde adierazgarriena helduena izan zen (n = 1.561; % 49,1). 5. irudian, adin-taldearen eta sexuaren arabera banaketa ikusten da.



5. irudia. 2024ko kasuen banaketa, adin-taldearen eta sexuaren arabera


LARRITASUNAREN ETA LARRITASUN-IRIZPIDEAREN ARABERAKO BANAKETA

Europar Batasuneko larritasun-sailkapenaren arabera, erreakzio kaltegarriak larriak* eta ez-larriak izan daitezke. 3.182 kasuetatik, 701 (% 22,0) **kasu larriak** izan dira. Kasu larrien jakinarazpen-tasa 31,26x100.000 biztanlekoa izan da. EAE izan da 100.000 biztanleko jakinarazpen-tasa handiena izan duen autonomia-erkidegoa.

* Erreakzio kaltegarria larria da, baldin eta:

- heriotza eragiten badu
- bizia arriskuan jar badezake
- ospitalizazioa behar badu edo lehendik egindako ospitalizazioa luzatzen badu
- desgaitasun edo baliaezintasun nabarmena edo iraunkorra eragiten badu
- sortzetiko malformazioa edo jaiotza-akatsa bada
- ikuspegi medikotik garrantzitsutzat jotzen den beste edozein bada


Aurreko larritasun-mailen arabera, jakinarazpen hauek jaso ziren:



6. irudia. 2025eko kasuen banaketa, larritasun-irizpidearen arabera (kasu batek larritasun-irizpide bat baino gehiago izan ditzake)

AMAIERA OROKORRAREN ARABERAKO BANAKETA


Kasu gehienak sendatu egin dira (n = 2.431; % 76,4). 2.512 kasuetan, hau izan zen amaieraren deskribapen xehatua:



7. irudia. 2025eko kasuen banaketa, amaiera orokorraren arabera

ERREAKZIO KALTEGARRIEN BANAKETA, ORGANOEN ARABERA

Jakinarazitako ondorio kaltegarrien banaketa, ehunekotan adierazita, eragindako organoaren arabera sailkatuta (Araugintza Jarduketetarako Hiztegi Medikoa, MedDRA), grafiko honetan jaso da (8. irudia):



8. irudia. 2025eko erreakzio kaltegarrien banaketa, sistema organikoen arabera. Nabarmentzekoa da lauk metatzen dutela kopururik handiena: digestio-aparatua, larruazala, nerbio-sistema eta nahasmendu orokorrak.

3.182 kasuetan, 5.252 erreakzio kaltegarri daude. Kontuan izan kasu batek zenbait erreakzio kaltegarrien eta zenbait medikamenturen deskribapena izan dezakeela.

GEHIEN JAKINARAZITAKO ERREAKZIOAK

7. taula. Erreakzio ugariak aparatua edo sistema bakoitzean


Aparatua	Erreakzio kaltegarrien banaketa goi-mailako terminoen (HLT) arabera (MeDRA)	Maiztasuna
Digestiboa	Sintomak: goragalea eta okadak	442
	Beherakoa (infekziosoa izan ezik)	313
	Min gastrointestinalak eta abdominalak (ahokoak eta eztarrikoak izan ezik)	139
	Nahasmendu gastrointestinal atonikoak eta hipohigikortasunagatikoak	59
	Zeinu eta sintoma gastrointestinalak (BISG)	55
	Sintoma eta zeinu dispeptikoak	42
	Ahoko lehertasuna eta listuaren nahasmendua	37
Larruazala	Pruritoa (BISG)	198
	Urtikariak	176
	Erupzioak, rashak eta exantemak (BISG)	160
	Eritemak	138
	Dermatitisa eta ekzema	54
	Angioedemak	32
NSZ eta NSP	Zorabioa	319
	Buruko minak (BISG)	154
	Somnolentzia	60
	Dardara (sortzetikoa izan ezik)	45
	Parestesiak eta disestesiak	38
	Disgeusia	18
Nahasmendu orokorrak	Edema (BISG)	135
	Nahasmendu astenikoak	124
	Erreakzioak administrazio-eremuan	90
	Sintoma eta zeinu orokorrak (BISG)	44
	Sentsazio eta pertzepzio subjektiboak (BISG)	42
	Erantzun terapeutikoak eta ez-terapeutikoak (farmako ez-eraginkorra, farmakoarekiko intolerantzia)	38
Arnas sistema	Eztula eta hari lotutako sintomak	140
	Arnasketaren anormaltasunak (disnea, takipnea)	40
	Goiko arnasbidearen sintomak eta zeinuak	73
	Sudurreko nahasmenduak	7
	Zotina	6

Erreakzio kaltegarrien banaketa goi-mailako terminoen (HLT) arabera

Aparatua	(MeDRA)	Maiztasuna
Psikiatrikoak	Antsietate-sintomak	73
	Insomnioa	40
	Nahasmendua eta desorientazioa	29
	Haluzinazioak (loarekin lotutakoak izan ezik)	21
	Amesgaiztoa	13
Muskulu-eskeletikoa	Min muskularrak	92
	Tendoi-nahasmenduak	39
	Min eta molestia muskuloeskeletikoak eta ehun konektibokoak	35
	Artikulazioekin lotutako sintomak eta zeinuak	32
	Muskulu-espasmoak	15
Begikoak	Betazalaren, betileen eta malko-guruinen infekzioak, narritadurak eta	24
	Infekzioak, hanturak eta horiekin lotutako zeinuak begian	18
	Ikusmenaren nahasmenduak —BISG— (ikusmen lausoa, diplopia)	17
	Begietako nahasmenduak —BISG— (begiko mina, begiko hantura)	11
Baskularrak	Nahasmendu baskular hipotentsiboak	34
	Nahasmendu baskular periferikoak (BISG)	34
	Nahasmendu baskular hipertentsiboak (BISG)	13
	Hipertentsio azeleratua eta gaiztoa (krisi hipertentsiboa)	7
Ugal-aparatua eta bularrak	Zakileko eta eskrotoko infekzioak eta hanturak	17
	Erekzioaren disfuntzioa eta eiakulazioaren nahasmenduak	17
	Zeinu eta sintoma bulbobaginalak	15
	Ugal-traktuaren zeinuak eta sintomak (BISG)	13
Metabolismoa-nutrizioa	Jangura gutxitua	24
	Hiponatremia	7
	Hiperkalemia, hipokalemia	7
	Hipergluzemia	6
Bihotzekoak	Maiztasunaren eta erritmoaren nahasmenduak (BISG)	31
	Sintoma eta zeinu kardiakoak (BISG)	27
	Arritmia suprabentrikularrak	4
Infekzioak eta infestazioak	Kandidengatiko infekzioak	27
	Herpesaren birusak eragindako infekzioak	6
	Emakumeen ugal-aparatuko infekzioak	5

GEHIEN JAKINARAZITAKO MEDIKAMENTUAK

Guztira, 12.437 farmazia-produktu jakinarazi dira, eta horietatik 3.371 erreakzio kaltegarriekin lotuta daudela susmatzen da. Horien artean, hauek izan ziren jakinarazpenetan ohikoenak izan ziren printzipio aktiboak:



9. irudia. Gehien jakinarazitako medikamentuak


Farmazia-espezialitateen sailkapen anatomikoaren arabera (ATC), maiztasunen arabera ordenatuta, hauek izan ziren medikamentu susmagarriak:

TALDE TERAPEUTIKOA		Kopurua	%-a
Nerbio-sistema (N)		806	23,9
Analgesikoak (N02)	421		
Psikofarmakoak (N05, N06)	305		
Antiepileptikoak (N03)	24		
Antiparkinsonianoak (N04)	4		
Aparatu kardiobaskularra (C)		586	17,4
Errenina-angiotentsina sistema (C09)	277		
Hipolipemiantek (C10)	149		
Antiinfekziosoak eta txertoak (J)		565	16,8
Txertoak (J07)	98		
Erabilera sistemikoko antibakterianoak (J01)	436		
Digestio-aparatua (A)		344	10,2
Kontraste-bitartekoak (V08)		233	6,9
Sistema muskuloeskeletikoa		194	5,8
Antiinflamatorioak eta antirreumatikoak (M01)	131		
Antineoplasikoak eta immunomodulatzaileak (L)		178	5,3
Immunoezabatzaileak (L04)	87		
Antineoplasikoak (L01)	74		
Arnas aparatua (R)		113	3,4
Odola eta organo hematopoietikoa (B)		99	2,9
Aparatu urogenitala (G)		83	2,5
Hormonak (H)		74	2,2
Dermatologikoak (D)		43	1,3
Zentzumen-organak (S)		33	1,0
Antiprotosoak, antihelmintikoak (P)		11	0,3
Bestelakoak		9	0,3
GUZTIZKOA		3371	100,0

JARRAIPEN GEHIGARRIA BEHAR DUTEN MEDIKAMENTUAK (▼)

97 kasutan (% 3,0), jarraipen gehigarria behar zuten sendagaiak zeuden. Hauek dira jarraipen gehigarria behar duten medikamentuak: Europar Batasunean 2011ko urtarilaren 1etik aurrera baimendutako printzipio aktibo berriak dituztenak; Europar Batasunean 2011ko urtarilaren 1etik aurrera baimendutako sendagai biologikoak; baldintzapean edo salbuespenezko inguruabarretan baimendu diren sendagaiak, eta segurtasunari buruzko azterketa gehigarriak behar dituztenak.

Hauek izan ziren medikamentu ohikoenak:



* Cominarty originala (3 kasu), Cominarty KP.2 (kasu 1), Fluad (gripearen aurkako txertoa), Bexsero (B taldeko meningokokoren aurkako txertoa).

10. irudia. Jarraipen gehigarria behar zuten medikamentuen kasu kopurua

KASU ALERTA-ERAGILEAK

